

A ERANSKINA:

EGUN BIZI DUGUN EUSKAL HERRIAZ

Euskal Herria desegindako makina da, herri batek bere makinariarekin harremanak berritu eta arraberritu behar baditu, Euskal Herria ez da gai bere lurraldearen eta gizartearen luze laburrean bere herritarren, lurraldeen eta sektoreen arteko harremanak eraiki eta berreraikitzeke, ez da gai etengabe gu zaharra berri eginez irauteko. Beste batzuen esku dago prozesu horiek eragiteko makina, euskal geografia sozial, ekonomiko edo kulturala ezagutu nahi ez dutenen esku. Eta horren ondorioak bizi ditugu, milaka militanteren eta urtetako lanari gailenduz hainbat arlotan –ez guztietan–.

Ez da ariketa erraza zertzelada gutxi batzuetan Euskal Herriaren diagnostikotzat har daitekeen argakia egitea. Are gehiago, txarra azpimarratuz onetik duguna ezkutatu eta garai berri bat abiatzeko eskura izan dezakegun ondarea ilunpean utz dezake.

Euskal Herriaz eta euskal herritarrez zenbait ezaugarri azpimarratu izan dira eta geure egin ditugu; esaterako askatasuna edo burujabetza gogor defendatzen dugula –zapalkuntzari aurre egiten diogula–, geure kulturari estu lotuta gaudela, gure lurra edo ingurua zoragarriak direla eta gogotik hari lotuta gaudela, ekintzaile eta langileak garela, behar denean matxino ere bai... Neurketa egin beharko genuke esandakoak hala diren edo zein neurritan diren jakiteko. Izan ere, ezaugarri historiko horiek bizi-bizi beharko ditugu aurrean dugunari aurre egiteko.

Lurralde antolaketa

Euskal espazioa errotik aldatu da, bai giza geografiari dagokionez, bai euskal herritarren mugikortasunari dagokionez. Gune populatuena gero eta populatuagoak dira eta gainerakoak gero eta hustuago daude. Are gehiago, euskal iruditerian izen handiko udalerrak “abertzale” edo “euskaltasunaren memoriari lotuak” –Tafalla, Bergara, Durango, Donibane Garazi...– jada hirugarren mailako erreferentziak bihurtu dira hiriburuen eta kostaldearen mesedetan. Lurralde horietan, berriz, gehienak etorkinak dira, beste euskal lurraldeetatik etorritakoak edo atzeritik, espazioarekin lotura afektibo berriak eraikitzen ari direnak, ez baitezpada osagai nazionalekin. Euskal geografia sozioekonomiko berria bizi dugu, beharbada nazio kohesio eta nazio garapeneko estrategiak berrikustea eskatzen duena.

Balore sozialen ordezkapena

Euskal identitatearen oinarrian jarri ohi diren ezaugarriak –arestian aipatutakoak eta beste batzuk–, eta hainbat hamarkadetan eraldaketarako eragile izan direnak, errotik aldatzen ari dira. Balore kooperatiboak, edo denonak diren elementuen aitortza –inguru naturala, jabetza publiko eta soziala, kohesio soziala, horizontaltasuna, parte-hartzea, matxinatzea...– ezerezean gelditzen ari dira balore berrien itzalpean eta askotan erabateko akritikotasunean –balore eskala sektorialak edo pertsonalak balore komunak gaineratik edo hauen ordezkari. Gogoan izan beharko genuke, balore komunak ezinbestekoak direla herri egitasmo bat gorpuzteko, are gehiago gurea bezalako egoeran, non ezaugarri bateratzaileak dauden asimilazio eta alienazio indarren jopuntuan. Herrigintzarentzat baliagarriak diren baloreetan desprogramazioa bizi dugu.

Ingurugiroa eta ondare naturala

Lurraren artifizializazioa proportzioan ez da handia, baina artifizializazio honen kontzentrazio prozesuak aztertzen baditugu, oharretan gara, azken urteotan galera garrantzitsuak izan dituztela udalerrri eta bailara gehienek. Inguruarekin uztartu beharrean inguru naturalarekiko etenean oinarritutako politikak garatu dira, jada ez dugu gure lurra bizi, eta inguruarekiko desafekzioak, osasunari dagokionez kaltegarria izateaz gain, herritarrak herri honekin duten arduratik urruntzen ditu.

Maila berean azpimarratzekoa da azpiegitura handien eraikuntzak ekarri duen muga artifizialen agerpena, lurrazalaren kutsadura kimikoa, uraren kutsadura eta oro har bizitzari eusteko ezinbestekoak diren oinarrien hondatzea eta horren guztiaren gaineko ezezagutza.

Energia iturri garbien ezarpena edo mugikortasun jasangarri baten garapenak maila honetan urrats nabarmenak ekar zitezkeen arren, Euskal Herriak atzerapen handia darama maila honetan, eta ekonomiaren lobby handien arabera garatzen ari da bere lurralde politika, bai artifizializazioari dagokionez, bai lurraren erabilerari, energia iturriei, edota mugikortasunari dagokionez.

Demografia eta egitura soziala

Oso gizarte zahartua da gurea. Herrialde guztiak biztanleria galtzen ari dira, eta 2025ean lau biztanletik bat 65 urtetik gorakoa izango da. Honek erabateko aldaketa ekarriko du maila guztietan. Are gehiago zenbait zonalde kolapso demografikora eta desertizaziora iritsiko dira. Hain larri ez dauden artean ere, belaunaldien arteko segidak datu negatiboak ematen ditu. Euskal lurraldetasunaren eraldaketan ezaugarri berri bat gehiago. Ondorioz, lurraldeak biziberritzeko estrategia eraginkorrak -konpromiso pertsonaletan eta ekintza instituzionaletan oinarrituak- gaurdanik integratu beharko dira herri proiektuetan.

Gure ekonomiaren ezaugarriek eta kokapen geografikoak mundu osoko pertsonak hartzeko lurralde egoki egiten gaitu. Etorkizuneko euskal gizarteak, beraz, zahartze ezaugarriak izateaz gain aniztasun kultural handia izango du.

Familia mota desberdinak gure artean ditugu, eta etorkizunean egoera horiek sendotuko diren aldetik, ezinbestekoak izango dira aldaketa juridikoak, modu baikorrean biziartzeko modua eskaini ahal izateko. Horrekin batera, ordea, bakardade egoerak ere izugarri haziko dira, eta ezinbestekoak bihurtuko dira mekanismo sozialak bakardadeak gainditzeko, edo bakardadearen ezaugarri larrienak aintzat hartzeko. Baita etxebizitza politika ere, besteak beste.

Lan merkatuari dagokionez, lan merkatu dualera goazela esaten da. Beraz, langile pobreen multzoa gero eta zabalagoa izango da, edozein jatorri sozialeko pertsonak nozituko dute eta administrazioaren zein gizartearen aldetik aktibazio handia eskatuko dute, prekarizazioaren ondorio larrienak -indibidualizazioa, bazterkeria...- balore sozialen eremuan ez nagusitzeko. Elkartasun eta asistentzia sistemak, enplegu politikak... horretara egokitu beharko dira.

Lan merkatuaren baitan aipamen berezia merezi dute emakumeek. Gizarte patriarkalaren emaitza da emakumea bere autonomia bermatzen duten jarduera ekonomikoetatik urruntzea -2015ean andreen artean 10 kontratuetatik 4 lanaldi murriztukoak izan dira, gizonezkoen artean 10etik 1-. Gaur egun emakumeek betetzen dituzte errenta eskasena eragiten dituzten lanpostuak, besteak beste intentsitate baxuenekoak. Etorkizuneko probreziak emakume aurpegia izango du Euskal Herrian.

Emakumeen artean bezala, gazteen artean ere behar bezala laneratu eta bizitza proiektu bat garatzeko aukera lan harremani eta lan merkatuari ezartzen zaion markoaren arabera dago. Gaur gaurkoz, lan esku soil gisa baliatuak diren aldetik, herri gisako interbentzioa eskatzen duen egoera baten aurrean gaude, gainerakoan, etorkizunean herri honek ekonomia sortzeko oinarria galduko baitu, langileria trebatua hain zuzen.

Egitura ekonomiko eta produktiboa

Kapitalismoaren ondorioak larriak ditugu zinez. Batetik, industriaren gainbehera eragin du. Finantza eta adreilu krisiak gure ehun industrialaren desagitea bizkortu du, azken 6 urtean 75.500 lanpostu suntsitu baitira industrian, eraikuntzan baino 15.000 gehiago eta zerbitzuetan baino ia 70.000 gehiago.

Baina larriena zera da: nola areagotu den langileriaren aurkako esplotazioa eta nola metatu den plusbalien lapurreta gure herrian. Ondorioz, langabezia, prekarietatea eta pobrezia datuak lazgarriak dira.

Hego Euskal Herrian ia 300.000 pertsona dago pobrezia egoeran, eta ia 50.000 pobrezia egoera larrian. 219.100 pertsona daude langabezian -%16-; 96.000 pertsonak bi urte baino gehiago daramate langabezian, eta 124.000 lagunek diraute lansaririk gabe.

Eginiko kontratuen %90 baino gehiago aldi baterakoak dira; ia %50 hilabete baino gutxiagokoak, %60 sei hilabete baino gutxiagokoak. Eginiko kontratuen ia %40 lanaldi partzialekoak dira, eta horietatik %70 emakumezkoek betetzen dituzte.

Kapitala-lana harremana errenta bidez aztertuz gero, ondorioa argia da: aberastasunaren banaketa bidegabean sakondu besterik ez da egin azken urteotan; gaur egun, enpresen jabeek langileek eginiko jarduera produktiboagatik duela 30 urte baino etekin handiagoak eskuratzen dituzte. Zalantzarik gabe, Madrilen idatzi, sindikatu espainiarrek bermatu, Gasteiz eta Iruñeak onetsi eta bertako patronalak aplikatu dituen lan-erreformek amildegia ertzean utzi gaituzte milaka eta milaka euskal langile.

Kapitalismoak, bere horretan, kapitalaren metaketa eta zentralizaziorako joera du; hau da, kapitalismoak mutur baten aldeko banaketa egiten du: langileak pobretzen ditu aberatsak are aberatsago bihurtzeko. Jarduera produktiboaren emaitzak erabat bidegabeak dira, aberastasunaren banaketa kapitalaren alde ari baita burutzen, milaka herritar prekarietatera, langabeziara eta pobrezia kondonatuz. Kapitalaren eta lanaren arteko harremana horixe denez, argi dago euskal langile herriari dagokiona indar-korrelazioa aldatzeko borrokatzea dela, borrokatuz gero kapital metaketa hori mugatu eta aberastasuna hobeto banatuko baita.

Bestalde, klase zapalkuntza horri kapitalismoaren izaera patriarkala gehitu behar diogu: bizitzaren iraunkortasunerako eta beraz, baita kapitalismoak beharrezko duen jarduera produktiborako, ezinbesteko diren lan erreproduktiboak emakumearen bizkar geratzen dira, inolako ordainsaririk edota aitortza txikiena jaso gabe. Azken urteotako murrizketa eta pribatizazio prozesuek gainera, lan erreproduktiboen joera pribatizatzailea areagotu besterik ez du egin, sexu zapalkuntza indartuz. Bestalde, etxeko eta zaintza lanak merkaturatzen direnean balio gabeko lantzat hartzen direnez, oso gaizki ordainduta egoteaz gain, lan baldintza oso prekariotan ematen dira gehienetan.

Klase eta sexu zapalkuntzei, nazio zapalkuntza ere gehitu behar diegu. Bereziki kezagarria dakusagu PNVren jarrera, suizidio ekonomiko espainiarra erabat bereganatuz, euskal eredu produktiboa goitik behera aldatu, tertziarizatu, oligarkizatu eta zentralizatzeko bidea egiten ari baita –Kutxabank, BBVA, Euskaltel, Iberdrola, Petronor, desindustrializazioa...-. Frantziar estatuaren barnean ere, euskal herritarren premiez guztiz ahantzita, botere ekonomikoek zerbitzu-ekonomia bultzatu eta laborantza bazterrean utzi dute, turistifikazioa eta menpekotasuna areagotuz.

Testuinguru honetan, burujabetza ekonomikoaren aldarrikapenak oinarri sendoak ditu, aberastasunaren sorrera eta banaketa osoari egiten baitio erreferentzia. Gaur egun, euskaldunok ez dugu aberastasun hori nola, zergatik eta zertarako sortu erabakitzeke inolako tresnarik, ez eta aberastasun hori nola banatu behar den erabakitzeke ere.

Orain arte ezagutu dugun euskal ekonomia lehengaien transformazioan eta energia kontsumo intentsiboan oinarritu da. Eredu hori krisian dago eta horrekin batera bere inguruan eraiki dugun guztia. XXI. mendeko euskal garapen egitasmoak ezinbestean Ezker Abertzalearen pentsamenduarekin bustia izan beharko du, maila guztietan.

Hizkuntz ordezkapena

Hizkuntza ordezkapena ez da gelditu hamarkada hauetan eta euskara ikasi dutenen kopurua hazi bada ere, euskaraz bizi diren herritarren kopuruak hazteko lan handiak ditu. Borondate irmoa duten pertsonen kasuan ere gero eta zailagoa gertatzen ari da euskaldun oso izanez gizarteratzea. Are gehiago, euskal hiztun belaunaldi berriek ez dute bere egin euskal hiztun oso izateko xedea, eta hizkuntza zein kultura alternantzian –oro har frantsesa edo espainolarekin– dabilta joan etorrian, gero eta erdaldunago. Halaber, euskarari hiztunak gehitzen zizkion joerak indarra galdu du nabarmen, bai kopuruetan bai intentsitatean. Erdaraz bizitzetik euskaraz bizitzerako urratsa egitera zeraman prozesua gabezia sozial eta instituzionalez beteta dago.

Asimilazio kulturala eta praxis zentrifugoa

Euskaldun izatea folklorizatu den aldetik, aukeran dagoenak ez dio erantzuten pertsonen egunerokoari. Esan daiteke ez garela hemen bizi eta ez garela “gu” sentitzen. Horrela esanda, euskal espazio kulturala –kultura kontzeptuaren adierarik zabalena hartuz, espresio artistikotik haratago, praxi sozial eta instituzionaleraino– ez da existitzen edo gutxiengo baten eremua da. Gehiengoak berriz, Frantzia edo Espainiako praxietan murgilduta dihardu, bai sorkuntza

artistikoari dagokionez, bai kontsumoari zein ibilbide sozialari dagokionez -berdin kirolean, garapen profesionalean, harreman pertsonaletan-. Kolonizazio kulturala bizi dugu. Horren froga da gehiengoak munduarekin duen harremana kultura espainol edo frantsesaren bitartez garatzen duela -edo bere hedabideen bitartez-.

Euskal Herrian jatorri aniztasuna gero eta handiagoa izango den aldetik, ezinbestekoa da, espazio propio bat sortzea, denon plaza izan daitekeena. Bitartekariak onartuz gero, gure aniztasuna espainolizatu edo frantsestu egingo da euskaldundu beharrean.

Beste era batera esanda, Ipar Euskal Herrian Parisera begira jartzen gaituzten prozesu eta egiturek eragiten gaituzte, eta Hegoaldean Madrilera begira jartzen gaituztenek. Kulturalki prozesu, metodologia eta arkitektura zentripetoak, bateratzaileak behar ditugu. Ezker abertzaleko kidegoak, lehen bezala orain ere, berebiziko egitekoa du alor honetan.